



Lanaren nondik norakoak:

- Zuetako bakoitzak Aiako Harriko 6 izaki bizidun sailkatzeko gako dikotomiko bat prestatu behar du. Taldekide bakoitzak hauetako multzo bat aukeratu beharko du:

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK	UGAZTUNAK
<i>Lacerta viridis</i> (musker berdea)	<i>Erinaceus europaeus</i> (trikua)
<i>Rana temporaria</i> (baso-igel gorria)	<i>Plecotus auritus</i> (ipar belarri handia)
<i>Natrix natrix</i> (suge gorbataiduna)	<i>Mates foina</i> (lepazuria)
<i>Alytes obstetricans</i> (txantxikua)	<i>Galemys pyrenaicus</i> (muturluzea)
<i>Salamandra salamandra</i> (arrabioa)	<i>Mustela lutreola</i> (bisoï europarra)
<i>Triturus marmoratus</i> (uhandre marmolairea)	<i>Capreolus capreolus</i> (orkatza)

HEGAZTIAK	ORNOGABEAK
<i>Gyps fulvus</i> (sai arrea)	<i>Rosalia alpina</i> (alpetar adarluzea)
<i>Milvus migrans</i> (miru beltza)	<i>Lucanus cervus</i> (arkanbelea)
<i>Milvus milvus</i> (miru gorria)	<i>Prionus coriarius</i>
<i>Dendrocopus minor</i> (okil txikia)	<i>Anax imperator</i>
<i>Hirundo rustica</i> (enara)	<i>Celastrina argiolus</i>
<i>Falco subbuteo</i> (zuhaitz-belatza)	<i>Bombus terrestris</i> (erlastarra)

- Amaitzean, zirriborroa taldekideei erakutsi, egokia eta ulergarria iruditzen zaien aztertuz. Azkenik, zirriborroa irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan.
- Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko eskema eta gorde zuen portfolio digitalean.

- Hemen dituzue zenbait pista erabil ditzakezenak:

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK: hankarik duen ala ez, azal hezea duen (anfibioren kasua) edo ezkatatzen estalitako azal lehorra (narrastien kasua), isatsik duen ala ez eta nolakoa, gorputzaren forma eta kolorea, azal leuna edo zimurtsua...

UGAZTUNAK: hegan egiteko gai den ala ez, muturraren luzera, hankak igeri egiteko oso egokituak dauden ala ez (zabalak, biribilduak), apatxik duten...

HEGAZTIAK: Tamaina handikoa den, buruak lumarik duen ala ez, lumen kolorea, isatsaren forma, mokoaren forma (zuzena, kurbatua) eta tamaina...

ORNOGABEAK: Elitrorik duten ala ez (kakalardoak bezalako hegalek gogorak dira), adar luzerik duten, antena luzerik, hegalek kolorea, hegalek tamaina, gorputzaren forma...